



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
2016/02/15

## **Ogasunak 600 euroko isuna jarri deutse azkenengo ikuskapenean "tiketik" emon ez eben 49 establezimenduri**

Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak eskatuta, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru diputatuak, faktura sinplifikatuak (tiketak) emotearen kontrolerako bigarren kanpainaren balantzea egin dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietan. Igazko urrian egindako ikuskapen hori dala eta 49 zehapen espediente barri zabaldu ziran. Ikuskatutako "92" saltokietatik, "49ri" zehapen espedientea zabaldu jaken, eta "600 euroko" isuna jarri; establezimendu horreetako "14ri" "salmentako eragiketak ez erregistretarren"; eta "35i fakturea ez egitegaitik eta ez emotegaitik edo fakturean IFK adierazo barik emotegaitik".

Iruarrizagak adierazo dauenez, beste "21" establezimendutan fakturea egin eta emon egin zan, baina faktura horrek ez eban beteten eskakizunen bat, BEZ moetea, izena edo enpresaren izaerea, hain zuzen be. Holangoetan, Ogasunak jakinarazpen bat bialdu dau, jaubeei hautemandako akatsen barri emonez. Beste 22 establezimenduetan Ogasunak ez eban ezelango irregulartasunik aurkitu.

Ikuskapena urrian egin eben "17 agente berezik", Bilboko, Barakaldoko, Basauriko, Bermeoko, Durangoko, Erandioko, Ermuko, Galdakaoko, Gernikako, Getxoko, Leioako, Lekeitioko, Ondarroako, Portugaleteko, Santurtziko eta Sestaoko saltokietan. "Behargin 1 eta 5 artean" dituen saltokiak aukeratu ziran, eta azken kontsumitzaileei ondasunak emoten edo zerbitzuak eskintzen ari diran 15 sektore hautatu ziran, tabernak, jatetxeak, farmaziak, okindegiak edo elikagaien saltokiak, beste batzuen artean.

Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, ikuskatutako establezimenduen "%44" pertsona juridikoek edo ondasun erkidegoek kudeatuta egozan, eta "%56" pertsona fisikoek. Azken horreen artetik, establezimenduen %48an titularrak andrazkoak ziran, eta %52 gizonezkoak.

Iruarrizagak azaldu dauenez, Foru Ogasunak iruzur fiskalaren kontrako burrukan egiten dauen kontroleko neurrietako beste bat baino ez dan tiketak kontrolerako kanpaina horren helburua "enpresarioei eta profesionalei jagokezan fakturazino betebeharrak beteten dirala egiaztatea, jaubeen errolda egoerea ikustea eta herritarrak, fakturak emotea eskatzeko daben beharraz kontzientzietea da, ez iruzurraren kontra burrukatzeko bakarrik, baita kontsumitzaile eta erabiltzaile moduan dituen eskubideak bermatzeko be".

Batzarretako taldeak "pozik" agertu dira holango kontrolak martxan jarri izanaren aurrean. EH Bildu taldea harrituta agertu da ezarritako zehapenen ehuneko altua ikusita,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

“%53”. Orokorrean, taldeek, ikuskapen lan horregaz eta iruzur fiskalaren burrukan kontzientzietako kanpainak martxan jarritz jarraitzera animau dabe Ogasuna.

Bukatzeko, Iruarrizagak jakinarazo deutse Batzar Nagusiei “hilebete honen bukaeran edo martxoaren hasieran” Ogasunak 2015. urtean aurrera eroandako iruzurraren kontrako kanpaina orokorraren emaitzen balantzea egingo dauela Batzar Nagusietan, eta batzarretako taldeen aurrean azalduko dituela bere sailak arlo horretan ekitaldi honetan martxan jarriko dituan neurriak.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

15/02/2016

### **Hacienda multa con 600 euros a 49 establecimientos que no entregaron "ticket" de compra**

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga ha hecho esta mañana un balance en Juntas Generales de Bizkaia, a petición del grupo juntero Podemos Bizkaia, de la segunda campaña de control de emisión de facturas simplificadas (tickets). Dicha inspección, efectuada en el mes de octubre del año pasado, arrojó la incoación de nuevos expedientes sancionadores. De los “92” establecimientos inspeccionados, a “49” se les incoó expediente sancionador con una multa de “600 euros”; a “14” de estos establecimientos “por no registrar las operaciones de venta”; y a “35 por no expedir y entregar factura o por no expedir esta sin consignar el NIF”.

Iruarrizaga ha apuntado que también se detectaron otros “21” establecimientos en los que se expedía y entregaba la factura pero ésta no reunía algún requisito como son el tipo de IVA, el nombre o la razón social. En este caso, Hacienda ha enviado una comunicación advirtiendo a los propietarios de los errores detectados. En los otros 22 establecimientos, Hacienda no encontró ninguna irregularidad.

La inspección se realizó en el mes de octubre, durante tres días, por "17 agentes especiales" en establecimientos de Bilbao, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Durango, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika, Getxo, Leioa, Lekeitio, Ondarroa, Portugalete, Santurtzi y Sestao. Se seleccionaron establecimientos que empleaban "entre 1 y 5 trabajadores" y se eligieron 15 sectores dedicados a entregar bienes o prestar servicios a consumidores finales, como bares, restaurantes, farmacias, panaderías o locales de alimentación, entre otros.

El responsable foral ha informado de que el “44%” de los establecimientos inspeccionados estaba regentado por personas jurídicas o comunidades de bienes y el “56%” por personas físicas. De estas últimas, en el 48% de los establecimientos los titulares eran mujeres y el 52% hombres.

Según Iruarrizaga, el objetivo de esta campaña de control de tickets, que es una más de las medidas de control que realiza la Hacienda foral en la lucha contra el fraude fiscal, es “verificar el cumplimiento de las obligaciones de facturación que incumben a empresarios y profesionales, comprobar la situación censal de los dueños, y concienciar a la ciudadanía de la necesidad de exigir la expedición de facturas, no solo a los efectos de luchar contra el fraude, sino también para garantizar sus derechos como consumidores y usuarios”.

Los grupos junteros han mostrado su “satisfacción” por la puesta en marcha de este tipo de controles. Algunos como EH Bildu se ha sorprendido del alto porcentaje de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

sanciones interpuestas, un "53%". En líneas generales, han animado a Hacienda a proseguir con esta labor de inspección y con la puesta en marcha de campañas de concienciación para la lucha contra el fraude fiscal.

Finalmente, Iruarrizaga ha informado a la Cámara que "a finales de este mes o a principios de marzo", Hacienda realizará un balance en Juntas Generales de los resultados de la campaña antifraude general llevada a cabo en el año 2015, y explicará a los grupos junteros las medidas que el departamento pondrá en marcha en esta materia para el presente ejercicio.